

BILBON MUNDUA IKUSI

XIV. Jardunaldiak

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

ISBN: 978-84-92413-53-9

Lege Gordailua:

Diseinua, maketazioa eta argitalpena: Erroteta - www.erroteta.com

Inprimaketa:

Printed in UE.

BILBON MUNDUA IKUSI

XIV. Jardunaldiak

AURKIBIDEA

Aurkezpena. Eneko Barrutia	7
Bilbo: Ezpata eta Girgilua (“Kolpatu zaituen ezpatak sendatuko du zauria”). Joseba Zulaika.....	9
Bilbo postindustrialaren bigarren eraldaketa. Pedro Zuberogoitia, Aitor Zuberogoitia.....	25
Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoez. Iñaki Gaminde	35
25 urtez ofizioa ikasten. Jose Joaquin Gallastegi	61
Sorkuntzaren bideak: Ez Dok Amairutik Kafe Antzokiara. Jose Angel Irigaray.....	79
Bilbo euskalduntzen, ikastolen ikuspegia. Manu Aurrekoetxea	87
Pausu labur eta sendoak. Goizalde Landabaso	101
Zelan emon atsegin euskaldunei? Asier Larrinaga	105
Bilbo eta komunikabideak. Naroa Iturri	113
Jean Etxepare Bilbon Kepa Altonaga.....	121
Luis Baraiazarra Txertudi idazle jakituna, ekintzaile aurrelaria 45 urtez. Juan Luis Goikoetxea	141

JARDUNALDIAURREA

Eneko Barrutia

XIV. jardunaldiak doguz aurtengoak, 2010. urtekoak. Helduaz-helduaz nerabegarora heldu ete jakuzan Mendebalderen jardunaldiak. Aurten be pozgarria da guretzat hemen, Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilboko Plaza Barrian, alkartutea.

Mendebalde Kultura Alkartearen beharraren ardatza jardunaldi honeek antolatutea da, baina beste hainbat ekintza eta lan burutzen ditu urtean zehar. *Euskalingua* aldizkari elektronikoa gure produkzioaren sail garrantzitsua da. Hamalau ale argitaratu dira honezkero eta gure web orrian (www.mendebalde.com) nahi cd-rometan kontsultau leiteke. Liburuak be hainbat argitaratu doguz, irakaskuntzari loturikoak, ikerketa linguistikoak, ostantzeko irakurgai arin eta politak be bai. Proiektuetan be parte hartzen dau gure alkarreak: berbaldiak, bizkaiera lantzeko egitasmoak, irakasleak prestatuko ikastaroak, eta abar.

Mendebalde Kultura Alkartea Bilbon sortu zan eta bilbotarra izan eban lehenengo bere gidaria, Alfonso Irigoien. Bilbon dau bere egoitza San Inazio auzoko Euskararen Etxean eta Bilbon antolatzen ditu urteroko bere jardunaldiak. Eta aurtengo jardunaldien gaia horixe dogu: Bizkaiko uriburua, Euskal Herriko uririk handiena, "Bilbon mundua ikusi". Kepa Altonaga izan da proiektuaren asmatzailea eta Mendebalde alkartea atoan konturatu zan gai interesgarria eta gitxi lako erakargarria zana. Juan Luis Goikoetxeak dinoskunez, "Bilbon mundua ikusi" Bizkaiko esapidea da, eurak edo euren inguruan erabilia, euskaldunen ahotik jaso. Polita izango litzateke Bilbo agertuten dan esapide-bildumea egitea: *Bilbao, han bere dongeak birao; Bilbo ikusi; Bilbon ibili; Hamen! Bertan Bilbo!; Bilbon mundua ikusi...*

Jardunaldietan Bilboren hainbat ikuskera argituten honeek hizlariok izango doguz: Joseba Zulaika, Aitor eta Pedro Zuberogoitia, Iñaki Gaminde, Jose Angel Irigaray, Jose Joaquin Gallastegi, Manu Aurrekoetxea, Goizalde Landabaso, Naroa Iturri eta Asier Larrinaga. Eskerrak emoten deuseguz danai parte hartzeagaitik.

Hiru ataletan dagoz banatuta berbaldiak: 1. Bilbo eta Modernitatea. 2. Bilbo eta Euskera. 3. Euskalduntzeko Ekimenak. 4. Euskal Komunikabideak Bilbon.

Omenaldia azkeneko ekitaldia izango da. Aurten *EUSKERAZALEAK* taldeari egingo deusagu esker onez. *EUSKERAZALEAK* Bilboko taldea da, euskerearen eta bizkaierearen alde urte askoan behar egin dauena. Angel Larreak egingo dau gorazarre berbaldia. Aurtengo liburuan Luis Baraiazarrari igaz eginiko gorazarrearen artikulua dago, Juan Luis Goikoetxeak idatzia.

Amaitu gura neuke barrero danai eskerrak emonaz, hizlariai, jardunaldietara etorri zarien guztioi, Mendebaldeko kideai, taldeari lagundu deusien erakundeai: Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Metro Bilbao.